


VILLA NTRA. SRA. DE LAS MERCEDES
D MAILA

NAFARROA HIRIBIDEA 31



Lukas Aldai, 1920.

Deskribapena

Estilo neoeuskalduneko etxea, bolumen trinkokoa eta isurki biko estalkia duena; erdisoto, beheko solairu, lehen solairu eta teilatupekoz osatu profila du. Jatorrizko fatxadak mantendu arren, barnealdea klinika gisa eta, geroago, eguneko zentro gisa eraldatu zuten. Neoeuskaldunaren ohiko elementuak mantentzen ditu, hala nola zurezko teilatu-hegalak eta balkoiak, bilbadura marraztuak, eta harlandu simulazioak kateadura eta azpaduretan. Baoen ordena erregularra nabarmentzen da, eta bisera azpian irekitako galeria primitiboa, gaur egun arotzeriaz itxia. Albo fatxada batean beste galeria bat dauka, estalkiaren luzapen gisa. Estalkiko isurkietatik gora ateratzen diren bi bolumen dauzka, hasiera batean aurreikusi zein eraiki gabeak, horma piko batetik besteraino. Albo fatxadako horma-atalarekin lerrokatuta dauden horien erremate, lau isurkiko estalkiak.

D mailako babes erregimen espezifiko

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: estalkiko jasodurak.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak, zurezkoak, bilbadurak eta estalkia.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.